

Euskararen Plan Estrategikoa

Lanean hasteko ordua

Euskararen Plan Estrategikoaren nondik norakoak azaldu zizkieten atzo LKSko ordezkariak lau hiriburuetan bildutakoei

I. Petxarroman / Donostia

EUSKARAREN Plan Estrategikoaren nondik norakoak azaldu zizkieten LKS Consultoresek, MCC enpresako Aholkularitza Elkartek, atzo Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan bildutako gizarte eragileetako ordezkariak.

Xabier Sotil elkarteko idazkari nagusiak azaldu zuenez, euskarak errealitate berrietara egokitu beharra dauka, euskal gizartearen esparru guztietan presentzia izateko.

«Horretarako, helburu eta jomuga zehatzak jarri behar dira, euskara leku ikusgarri eta pribilegiatu batean kokatu eta XXI. mendeko Euskal Herriaren funtsezko nortasun ezaugarria izateko».

Euskararen Plan Estrategikoak hizkuntza normalizazio prozesuan aurrera egin nahi du gizartearen aldetik. «Hau da, gizarte eragile desberdinek egindako azterketa eta diagnosiaren adierazpena izan nahi du, horietako bakoitzak konpromiso zehatz batzuk bereganatuz, planaren txertatzea bermatu ahal izateko».

Lau printzipio metodologiko
Sotilek planaren lau printzipio metodologiko nagusien berri eman zuen gero. Bate-tik, partaidetza eta adostasuna nabarmendu zituen. Gogoratu zuen prozesuak gizarte eragileen inplikazioa eskatzen duela, eta horretarako beharrezkoa dela gizartearen aldetik hizkuntz kontzientzia, borondatea eta al-daketarako konpromisoak duen garrantzia hedatzea.

Bigarrenik, ikuspegi estrategikoa eta lehen tasun fin-katzea aipatu zituen, «proposatutako helburuak lortzeko

ahalegin eta baliabideak zein alorretan pilatu behar diren finkatzeko».

Hirugarrenik, funtsezko-tzat jo zuen nork bere alorrean konpromiso zehatz eta in-dibidualak hartzea.

Laugarrenik, Sotilek argi utzi zuen plan estrategikoa ez dela dokumentu itxi bat, «bai-zik eta denboran berrikusi eta eguneratzeko aukera eman behar duen kudeatze tresna bizia».

Lau fase

Ondoren, Fermin Garmendia LKS Consultoreseko Lanaren zuzendari tekniko-

Fermin Garmendia (LKS Consultora)
«Planak egokitu behar du egoera ezberdinetara, eta ez alderantziz»

ak erabiliko den metodologia azaldu zuen. Adierazi zuenez, lehen faseak proiektua antolatzeari buruzko diagnostikoa egingo da. Hurrengo



Xabier Sotil, LKS Consultores-eko idazkari nagusia, atzo, plan estrategikoa azaltzen.

urratsa kasu bakoitzean garatu beharreko ildo estrategikoak eta helburuak zehaztea izango litzateke. Azkenik, ekintza planak zehaztuko dituzte, eta planen jarraipen sistema bat diseinatuko dute, «egoera berrietara egokitzeko, eta gerta daitezkeen desbideraketak zuzentzeko».

Garmendiak esan zuen plangintza ez dela egiten ego-

erak plan horietara egoki daitezen, baizik eta planak egokitzen direla egoera jakinetara. Fase ezberdinetan aurrera egiteko, talde dinamikaren teknika erabiliko dute funtsean.

Plana garatzeko, antolatze egitura bat osatuko dute. Alde batetik, jarraipen batzordea egongo da, sinatzaileen lau ordezkariak eta

Kontseiluak osatuta. Harekin batera, batzorde planifikatzailea, hizkuntz normalizazioan eta hausnarketa estrategikoaren garapenean adituak diren Kontseiluko kideek osatuta.

Horiez gain, batzorde teknikoa osatuko dute Kontseiluko eta LKSko kideek. Azkenik, sektoreek 24 lan talde osatuko dituzte.

Futbol taldeak, sustatzaileen izenean

HEGO EUSKAL HERRIKO lau futbol talde nagusietako lehendakariak hitz egin zuten akordioaren 22 sustatzaileen izenean. Denek nabarmendu zuten euskararen alde duten konpromisoa.

Jose Mari Arrate Athletic-eko lehendakariak atzoko ekitaldiaren garrantzia nabarmendu zuen: «Sekula ez bezala, ideologia, jatorri, sektore eta ezaugarri desberdinetako pertsona eta erakundeak bat egin dugulako gure hizkuntzaren normalizazioaren alde».

Arratek urrats his-

torikotzat jo zuen atzoko sinatze ekitaldia. «Sinaketa hau bide luze baina arinakastatsuen baten abiapuntua da. Egunen batean atzera begiratu eta harrotasunez gogoratuko du-gu egun hau».

Luis Uranga Realeko lehendakariak gogoratu zuen zabalduetako prozesuaren bidez oinarriak jarri nahi dituztela euskara gainerako hizkuntzekin bizi dadin, aukera berdintasunean. «Egun oraindik ez baikaude egoera horretan».

Francisko Javier Liberal Alaveseko Administrazio Kontseiluko



Luis Uranga Realeko lehendakaria atzoko hizketaldian.

kidearen hitzetan, «abendutik hona lan handia egin da, baina egin behar denaren lehen urratsa besterik ez da izan».

Javier Miranda, Osasunako lehendakariak gogoratu zuen Osasuna dela izena euskaraz duen euskal talde bakarra, eta horregatik Arrate eta Uranga maiz zirikatzen dituela. Bestalde, nabarmendu zuen orain partidu aurreko agurrak euskaraz egiten direla, txatela ere bai, denda euskaraz jarri dutela, eta presio handia jaso dutela hori dela eta.